



**Euskal
Eredua**
Konponbide berriak

ehbildu

Jauzi baterako aukera

**Euskara eta hizkuntzen
markoa hezkuntza-
testuinguru eleaniztunean**



Hezkuntza

1. Euskalduntze-prozesua: non gaude?	3
2. Hizkuntza-politika: zertan gaude?	5
3. Euskalgintza: nola gaude?	8
4. D eredua berrasmatu beharraz	10
5. Euskara ardatz duen esparru eleaniztuna	12
» Marko teorikoa	
» Ezaugarri nagusiak	
» Marko estrategikoa	
» Tresna berriak	
» Garabidea	
6. Lege-proiektuaren heldulekuak	20
7. Zertarako momentua da? Aukerak eta hautua	25

Dokumentu honek Eusko Jaurlaritzaren gobernu-batzordeak onartutako lege-proiektuaren laugarren tituluari buruzko EH Bilduren ikuspegia jasotzen du: bertan egiten den planteamendua nola ulertzen dugun eta hurrengo urteetan zein garabide izan beharko lukeen. Euskalduntze-prozesua non eta euskalgintza nola ikusten dugun azalduta, jauzi baterako aukera baten aurrean gaudela defendatu eta hautu bat egiteko momentua dela aldarrikatzen dugu.

Euskalduntze-prozesua non gaude?

Eskura dugun soziolinguistika onena baliatu dezagun. Azken urteetako azterketa soziolinguistiko kuantitatibo eta kualitatiboak eskutan, zein da euskararen egoeraren inguruan egiten dugun diagnosis? Zein euskal hiztun-komunitatearen ingurukoa? Zein puntutan dago euskalduntze-prozesua? Ezinbestekoa zaigu diagnosiaren gaineko oinarritzko adostasuna, hori gabe ezinezkoa baita datozen hamarraldietan hezkuntza-sistemak bere gain hartu beharreko hizkuntza-politika adostu bat formulatzea.

Euskararen komunitateak bizirik jarraitzen du, indartzera eta ahultzera bultzatzen duten aldibereko joera kontrajarriekin. Azken hamarraldietan, aldi berean gertatu dira bai euskaren kaltetan izan diren ordezkatzeko-dinamikak eta baita hizkuntzaren jarraipena eta indarberritzea dakarten dinamikak ere. Azken 20 urteotan zehazki, indarberritze-bulkada ahuldu egin dela eta geldotze-aro batean sartu garela erakusten dute datuek. Horretan eragin dute, besteak beste, mundu globalizatuko aldaketa ekonomiko, teknologiko, sozial eta kultural indartsuek eta Euskal Herriko demografian, jaiotze- zein migrazio-fluxuetan, izan diren aldaketek. Pentsatzekoa da joera horiek areagotu egin daitezkeela etorkizun hurbilean; horrek ez du erraztuko hizkuntzaren indarberritzean aurrera egitea.

Hori horrela, gaur arte ekarri gaituen euskalduntze-prozesuaren ibilbideari eta egungo egoerari dagokionez, honakoa deritzogu: i. Egin duguna ikaragarria da; ii. Ez gaude ondo: geldotze-aro batean gaude eta norabide-krisia daukagu. Honako argi gorriak identifikatzen dira: arnaguneen ahultzea, kulturgintzaren erreferentzialtasunaren galera, telebistaren gainbehera, kontsumoaren fragmentazioa eta erabilera-kurbaren estankamendua.

Azterketa demolinguistiko berrienei erreparatuta zera esan dezakegu: arazoa ez dago soilik erabileran, edo, hobe esanda, erabilera eta ezagutzaren arteko harremana gehiago problematizatu

behar da. Hau da, zeri deritzogun ezagutza, edo zer (nolako) ezagutza (hizkuntza-gaitasunak) d(ir)en zer erabilera ispilatzeke gai, eta, ondorioz, non eta nola eragin behar den. Datorren mundua zelakoa izango den eta gure herriak nolako aldaketak biziko dituen asmatzen jakitea ere garrantzitsua zaigu: gizarte-aldaketak, teknologia-aldaketa eta hainbat egiturazko ezintasun (zati-keta administratiboa, botere politikorik eza eta demolinguistika bihurria). Guztiarekin, zera esan dezakegu: orain arte egin duguna egitearekin ez dugu aurrera egingo, eskala handiko erreakzio bat behar da.

Hizkuntza-politika zertan gaude?

Nekez formulatu daiteke hezkuntzari dagokion hizkuntza-politika bat ikuspegi holistikorik gabe. Eskolak soilik ezin du. Haur eta gazteek beren denboraren % 15 inguru soilik egiten dute eskola-eremuan eta gaur egungo sozializazio-mekanismo indartsuenak ez daude eskolaren eskura. Ondorioz, hezkuntza-sisteman garatu beharreko hizkuntza-politikak gogoeta zabalago baten parte izan behar du, ezinbestean.

Jakitun gara diagnosian ados jartzea zaila baldin bada, are dela gaitzagoa hizkuntza-politika berri baten oinarrien gainean bat egitea. Prozesu bat izango da, hezkuntzan egin beharreko bidea hasteko ez dugu halako adostasun orokor baten beharrik. Alabaina, hezkuntzan egin nahi denari proiektio estrategikoa ematen diogu.

Hauxe da gure ikuspegia:

Euskal Autonomia Erkidegoko 1982ko Euskararen Legea onartu zenetik indarrean egon den hizkuntza-politikaren paradigma honakoa izan da: bi hiztun-talde daude euskal gizartean, euskal eta erdal hiztunak, eta bakoitzari bere hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkio. Paradigma honetan hizkuntza-politikaren helburua da hiztun-talde bakoitzari bere hizkuntzan aritzeko eskubidea bermatzea gizarte-funtzio nagusietan. Garai hartako jauzi politikoa izan zen euskal hiztunoi eskubideak aitortu zitzaizkigula lehen aldiz (euskaraz ikasteko, informazioa euskaraz jasotzeko, administrazioaren aurrean zein beste gizarte-funtzioetan euskaraz aritzeko).

40 urteko ibilbidearen ondoren, zer esan dezakegu? Hain zuzen ere, egin duguna ikaragarria dela. Leku, modu, bide askotatik egin da. Instituzioen bultzada erabakigarria izan da eta herri-mugimenduaren arnasik gabe ezingo zatekeen egin. Pizkundera instituzionalizazio-prozesu moderno bano lehenago gertatu zen eta, ondoren ere, euskal hiztun-komunitateak sen autoerantzailerari eutsi dio euskararen garabidearen eremu askotan.

Eta bai, ekidin beharko genuke, guztiok ere, euskararen egungo egoeraren gaineko eztabaidak baliatzea iraganean egindako hautuak legitimatzeko. Eta horretarako gai bagina, albo batera utzi beharko genituzke aurreiritziak ere, desaktibatu beharko genuke besteek emandako edozein irizitan iraganean egindako hautuak legitimatzeko saiakerak hautemateko hipersentsibilitate hori.

Izan ere, asko egin da eta ertz eta lubaki ezberdinetan egon den jende askori esker izan da. Utz dezagun horrela. Eta horri esker badugu hamarraldi luzeetako ibilbide bat nondik irakaspen partekatuak atera ditzakegun: i. Ezagutza-erabilera binomioari dagokionez, hizkuntza-gaitasunen eta motibazio-sistemaren garapenean urratsik eman gabe erabilera-kurbak ez du gorantz egingo, are, beheranzko joerari eustea zaila izango da. ii. Euskararen kontrako oldarraldi politiko-judiziala egiturazkoa da, eta 1982ko kontsentsuak auzitan jartzera iritsi da. iii. Mundua zeharo aldatu da, XX. mendeko hizkuntza-politikatako askok ez digute XXI. mendean balio.

Uste dugu, eskura dugun soziolinguistika onenari kasu eginez, mundua norantz doan erreparatuta eta azken hamarraldietako esperientzia jasota, erraz esan dezakegula hizkuntza-politikan jauzia eman eta kontsentsu politiko berriak eraikitze momentua dela honako hau; eta ez, ez gaudela beste hamarraldi bat galtzeko moduan.

Euskalgintzaren Kontseiluaren Batuz Aldatu proposamenarekin sintonian, horrela ezaugarrituko genuke XXI. mendean behar dugun hizkuntza-politika:

XXI. mendeko hizkuntza-politikaren helburuak

Hiztun-komunitate sendo eta zabala/herritar euskaldun eleaniztunen multzo zabal eta trinkoa/euskal hiztun osoen nukleo sendo eta zabala osatzea. Horretarako:

- » Zenbait lurraldetan ezagutzaren unibertsalizazioa erdiestea.
- » Funtzio nuklearrak ziurtatu eta egonkortzea euskara hautatu eta eroso erabili ahal izateko.

XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak

1. Euskarak ofiziala behar du euskararen lurralde osoan.
2. Euskal herritarrei aitortu egin behar zaie funtzio guztietan bi hizkuntzatan aritzeko eskubidea.
3. Eskubidea aitortzeaz gain, bermatu egin behar zaie eskubide hori. Horrek, Iñigo Urrutiak aipatu artikuluan ondo azaltzen duen bezala, hiztun-taldeak bereizten ez dituen hizkuntza-politika eskatzen du, norbanakoak euskalduntzera baino eremuak euskalduntzera bideratua,

beti ere herritar guztien hizkuntza-eskubideei kalterik egin gabe, baina modu integratuago batez. Hauxe litzateke, hain zuzen ere, paradigma berria.

Errealismo politikoz jokatu behar da, lurralde-eremu bakoitzaren errealitate zehatzetik abiatuz: lurralde-eremu batzuetako hizkuntza-politika beste batzuetakoa baino aurreratuago izango da. Eremu estrategikoak: Administrazioa, hezkuntza, haur eta gazteen aisialdia, komunikazio-sistema, lan mundua.

4. Zenbait funtzioetan euskara lehenetsi egin behar da, beste batzuetan minoritarioa izango dela aintzat hartuz. Zehazki, tokiko funtzioetan, haur eta gazteen aisialdian eta kulturgingintzan.
5. Arreta berezia eskatzen duten eremuak: ikus-entzunezkoak, hizkuntza-teknologiak, etorkinen harrera-planak.

1982ko EAEko Euskararen Legeak bere egin zituen 1 eta 2 oinarriak, hortik aurrerakoak ez. Hiru probintziotan helburuak beharko luke 3, 4 eta 5 oinarriak ere bere egingo lituzkeen hizkuntza-politika eta horri lege-babesa emango liokeen Euskararen Lege berria.

Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoan helburuak beharko luke 1 eta 2 oinarriak bere egingo lituzkeen hizkuntza-politika eta horri lege-babesa emango liokeen araubidea, Nafarroaren kasuan, 1986ko Legeak ezarri zuen zonifikazioa gaindituko lukeena.

Euskalgintza nola gaude?

Eta nola dago euskalgintza halako momentu hain inportantean?

Inkesta soziolinguistikoei erreparatuz, badakigu gizartearen gehiengo bat euskararen aldekoa dela Euskal Autonomia Erkidegoan. Hau da, euskararen aldeko iritzi soziala sendoa dela hiru herrialdeotan. Horren froga da azken hamarraldietan D ereduak, gurasoen hautuz, izan duen gorakada eta B eta A ereduaren gainbehera.

Hori egia den bezala, egia da “inposizioaren” diskurtsoak sarbide erraza aurkitzen duela gizarteko hainbat sektoretan. Euskara inposatu nahi denaren diskurtso soziala, batzuetan lozorroan dagoela dirudien arren, indartzen ari delakoan gaude: “etorkinak beharko ditugu lan-merkatuan eta euskara traba zaigu”; “hizkuntza-eskakizunak lan-eskubideen kontrakoak dira eta malgutu egin behar dira”; “euskararen aldekoak inklusioaren eta gizarte-berdintasunaren aurkakoak dira, edo, gutxienik, bata lehenesten dute bestearen aurrean”; “D ereduak porrot egin du ingurune soziolinguistiko ez-euskaldunetan eskaintzeak zentzurik ez duelako, eta gainera ikasleen ibilbide akademikoa kaltetzen ari gara”; “hizkuntza-politika berri bat planteatzen ari direnak autogobernuaren oinarritzko adostasunak apurtzen ari dira”.

Beraz, oldarraldia ez da soilik politikoa eta judiziala: euskarak espazio berriak irabaz ditzan beharrezkoak diren politiken kontrako korrante sozial bat gorpuzten ari da, noiz eta euskalduntze-prozesua aipatu dugun puntuan dagoenean. Eta horren aurrean euskalgintza indarge ikusten dugu.

Euskalgintzak azken hamarraldietan intuiziotik eta dinamika solte samarretatik ikuspegi estrategikora, egituratzera, profesionalizaziora egin du jauzi, eta horretan urrats nabarmenak egin eta sendotasun ukaezina erakutsi du. Baina, aldi berean, azken garaiotan, mugimendu euskaltzalea apaldu eta lausotu egin da. Momentu honetantxe, begi bistakoa da diskurtso indartsu bat plaza-

ratzeko ezina. Trantsizio bat gertatzen ari dela dirudi, eta, pixkanaka bada ere, euskararen aldeko diskurtsoa eta praxia ari dela gaur egungo mundura egokitzen, berritutako eta egokitutako diskurtsoekin.

Baina bada garaia fase berri bat irekitzeko: euskalgintza sozialak eta instituzionalak nork bere bidetik egin du azken 40 urteotan, egon dira elkarlanean egitasmoak, baina puntualak eta partzialak izan dira. Inoiz ez dugu modu sistemikoan esperimentazioa-gune seguru bat definitu eta denboran garatu. XXI. mende honetako baldintza sozial eta politikoen (gizarte-individualizazioa, demokrazia ordezkatzailaren krisia, ehundura komunitarioen ahultzea, identitate kolektiboen fragmentazioa) eta datorren mundu honen ezaugarriek (aurrez aipaturikoak) beharrezko egiten dute bide partekatu bat: herri gisa dugun ahalmen komunitarioa askatzeko gai diren elkarlan dinamika eraginkorrak martxan jarritz baino ez daiteke pentsa euskalduntze-prozesuan aurrerapen kualitatiborik posible denik. Euskalduntze-prozesuak behar du lankidetzazko ekosistema bat oraino ezagutu gabea.

Hori esanda, uste dugu, hizkuntza-politikaren auzian momentu erabakigarrian aurkitzen garela. Azken urte luzeetan inboluzio prozesu bat gertatzen ari da, esan dugunez, dimensio politikoa, judiziala eta soziala duena. Eragile politikook dugu, zalantzarik gabe, egoerari neurria hartzeko erantzukizun behinena. Erreakzio demokratiko baterako momentua delakoan gaude, eta hezkuntza legearekin erreakzio horren lehen kapitulua idatz daitekeela deritzogu, ardatz identitariotik aparte, euskal gizartean adostasun zabala baitago eskolak euskaldun eleaniztunak sortu behar dituela dioen iritziaren inguruan.

Sinetsita gaude euskararen ezagutza eta erabilerak kohesio sozialaren alde egiten dutela, hiru hizkuntzen jabe egingo gaituen hizkuntza-politika dela modernoa, europarra, berdintasunaren aldekoa, guztion hizkuntza-eskubideekiko errespetuzkoa. Inboluzioaren aurrean, diskurtso politiko argi bat agertzeko konpromisoa hartzen dugu, irmoki defendatuko duena aniztasunaren kudeaketa demokratiko bat, eta horren alde egiteko gehiengo demokratiko sendo bat egon bada goela euskal gizartean. Hizkuntza-politika hori ebidentzia soziolinguistikoa eta literatura zientifikoa onena eskutan defendatuko dugu, konplexurik gabe, euskarak XXI. mendean tresna eta baliabide berriak behar ditugula adieraziz.

D eredia berrasmatu beharraz

Zergatik berrasmatu D eredia? Hezkuntza-eragile zenbaiten diskurtso publikoan errazegi onartzen da, D eredia nabarmenki orokortzen ari denez gero, bide onetik goazela. Zalantzarik gabe, garaipena da D ereduaren orokortzea. Gurasoek, hautu librez, D ereduaren alde egin dute. A eta B ereduak gainbehera datoz, ordezkapen-prozesu argia gertatzen ari da lehen hezkuntzan. Besterik da DBHn (nahiz hemen ere joera nabarmena den), Batxilergoetan eta Lanbide Heziketan.

Lehen Hezkuntzari begiratzen badiogu, A eredia hondarrekoa da eta B eredia sare batean gotortu da. D eredia neurri handian orokortu dela esan dezakegu, beraz. Baina garaipen horrek badu bere ifrentzua. Batetik, gaur egun, hiztun-profil berriak ditugu D ereduko ikastetxeetan (H1, H2 eta H3 elkarrekin hezigune berdinetan), eta horrek ondorio sakonak ditu hizkuntzen ikas-irakas-kuntzari dagokionez. Izan ere, gaur egun, euskara da eskolaz kanpo euskararekin inolako kontakturik ez duten ikasle askoren ikas- eta irakas-hizkuntza. Eskolak ez die (neurri handian ezin die, eskolak soilik ezin baitu) aski hizkuntza-gaitasun eta motibazio eman, eta, ondorioz, euskara, eskola-hizkuntza (status quo-ak ezartzen diena) besterik ez da beraientzat. Horren guztiaren baturak euskararekiko kontraktasuna ere sortzen (ahal) du ikasle hainbatengan.

Bestetik, D eredia orokortu bai baina, kasu askotan, lausotu ere egin da. Esan nahi baita, euskararen presentziak atzera egin du ikasgeletan (ikastorduak, hizkuntza-paisaia, erreferentzia kulturalak...) zein ikastetxeetako harreman informaletan (patio orduetan, ikasle-irakasle zein irakasle-irakasle harremanetan...). Hau da, gaurko D eredu batzuek B ereduaren antz handiegia dute. Ondorioz, ez dago D eredu bat eta bakarra, D eredu asko daude, ikastetxearen ingurune soziolinguistikoa eta sozioekonomikoaren arabera.

Egoera hau delarik, konstatazio bat: oro har, D ereduak ez du behar beste euskalduntzen. Hots, ez ditu beharrezko hizkuntza-gaitasunak ematen eta ez du motibazio-sistema sendorik eskaintzen. Euskara irakastea eta euskaraz irakastea ez baita inolaz ere aski testuinguru soziokultural ho-

netan (digitalizazioa, aniztasun kulturala, globalizazioa) diglosia egoeran dagoen hizkuntzaren kasuan. Are, beharrezko gaitasunak eta motibazioa eskaintzen ez duen euskararen ikas-irakaskuntzak hizkuntzarekiko atxikimendu galera eta, kasurik okerreanean, kontrakotasun esplizitua ere sor dezake ikasleengan.

Ohar gaitezen euskalduntze-prozesuan urrats kualitatibo berriak ematearen kontra daudenek D ereduaren “porrota” hartzen dutela, hain zuzen ere, beren diskurtsoa legitimatzeko abiapuntutzat, ondoren oso bestelako ipar bat planteatzeko, noski: “Arazoa da D eredu eskaintzen ari gaitzaizkiela D eredu ikasi behar ez duten ikasleei. Izan ere, beren ingurune soziolinguistikoa euskalduna ez bada, eskolan ez dute euskara ikasiko eta, gainera, kaltetu akademikoa jasoko dute. Hau da, gurasoak okerreko hautua egiten ari dira, D eredu matrikulatu ordez B eredu matrikulatu beharko lituzkete beren seme-alabak; hori da konponbidea, eta ez, akatsa areagotuz, bide honetan (euskara gehiago) sakontzea”.

Jakina denez, guztiz bestelakoa da gure iparra. Eskolak soilik ezin du, noski ezetz. Horregatik, hain zuzen ere, behar dugu hizkuntza-politikaren ikuspegi holistikoa. Baina eskolak egin dezakeen guztia egin behar du, eta, ebidentzia zientifikoaren arabera, nahikoa baliabide ezarriko balira, planteamendu egoki bat ez lihoake euskara lehen hizkuntzatzat ez duten ikasleen arrakasta akademikoaren kaltetan.

Horretarako, D eredu berrasmatu egin behar da. Zer zentzutan? Eskolak bere esku dauzkan tresna guztiak ahalik eta modu eraginkorrean baliatze aldera eman dezakeen guztia eman dezan ikasleei beharrezko hizkuntza-gaitasunak eta motibazio-sistema eskaintzeko. Hitzun osoak sortzeko eskolak duen ahalmenaren mugetara iristen den eredu, horretxeri deritzogu D+ eredu. Eta honek aldaketa asko ekarri behar ditu: hizkuntzen didaktikan, heziguneetan jarraitu beharreko estrategia soziolinguistikoetan, landu beharreko dimentsioetan, irakasleen formazioan, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko uztarketan eta abar.

Beharrezko hizkuntza-gaitasunak eta motibazio-sistema eskuratzen duen hitzun-profila dimentsio anitzekoa baita. Hizkuntza-adierazpenaz eta corpusaz gain badira beste alderdi eta gaitasun batzuk hitzun oso bihurtzen gaituztenak: hizkuntzarekiko jarrera eta atxikimendua, hitzunikiko begirunea, hizkuntzaren estatusa, motibazioa eta abar. Hizkuntza minorizatuen kasuan, balio motibatzaile nagusietako bat dimentsio kulturala da, hain zuzen ere. Euskaldun eleaniztunak sortzeko, hizkuntzaz gain, euskal gizarteko eta kulturako adierazpenak barneratu behar dituzte ikasleek: euskal kultur-sistemaren transmisioa eragin behar da.

Hizkuntzen ikas-irakaskuntzarako marko teoriko eta estrategiko berria behar dugu.

Euskara ardatz duen esparru eleaniztuna

Modu askotara dei diezaiokegu sortzeke dagoen eredu berriari. Baina hau ez da eztabaida nominalista bat. Gaude, azken hilabeteetan eztabaida gehiegi zentratu dela azalean eta gutxiegi mamian, eta zuzenean jo dugula lege-proiektu ezberdinen nahikotasun/ez-nahikotasunean azpimarra jartzera, hezkuntzan eta hezkuntzatik garatu beharreko hizkuntza-politika sakonki gogoetatu gabe. Are, sarri, planoak nahastu ere egiten dira: lege-testuari eskatzen zaio hizkuntza-politikaren zehaztapena (“legeak estrategiak definitu beharko lituzke, planak iragarri”...), lege-testuak hizkuntza-politika jakin bat garatzeko beharrezko erregulazioa denean eman behar duena: printzipioak, helburuak eta ildo estrategikoak. Hezkuntza-legeak zer-nolako legea izan behar duen ere bada gogoetatu beharreko zerbait, 30 urterako norabidea eman nahi badu, ezin du oso zehatza izan, jarraitu beharreko estrategiak aldatuz joan beharko baitira.

Zer da euskara ardatz duen esparru eleaniztunaz ulertzen duguna? Zein da eskolan garatu beharreko hizkuntza-politika? Zer garabide aurreikusten diogu datozen urteetan? Zer baliabide behar ditugu horretarako? Eta, ondorioz, zer euskarri juridiko legean? Hori da eztabaidaren hurrenkera logikoa. Argitasun hori da behar duguna.

Horrela ulertzen dugu guk euskara ardatz duen esparru eleaniztuna:

Euskara hizkuntza propioa eta hizkuntza gutxiagotua dela aintzat hartuz, hizkuntzen tratamendu integral eta integratua egiten duen ikasteredu orokortua, zeinak, legeak ezarritako irteerako hizkuntza-konpetentziak erdiesteaz gain, euskaraz eroso bizi ahal izateko gutxieneko hizkuntza-gaitasunak eta motibazio-sistema emateko (euskal hiztun osoak sortzeko) helburua duen.

Izan ere, bi hizkuntza ofizialetako bat hizkuntza propioa da legeak hala aitortuta (Gernikako Estatua), eta gainera diglosia egoeran dago. Bi faktore horiek justifikatzen dute, hain zuzen ere, euskararen ardaztasuna esparru eleaniztunean: euskara hizkuntza propioa da hiru lurralde hauetan

eta diglosia egoeran dago (lege-proiektuak berak aitortzen duenez, egoera minoritario eta minorizatuan).

Marko teorikoa

Honako marko teoriko hau (dokumentuaren laugarren atala)¹ jotzen dugu ontzat euskara ardatz duen esparru eleaniztuna definitzeko orduan.

Ezaugarri nagusiak

Aipatu marko teorikoan oinarrituz, honako hauek dira, gure ustez, euskara ardatz duen esparru eleaniztunaren tasun funtsezkoenak:

- » Euskararen ardaztasuna: Aipatu arrazoiengatik, euskara ardatza da, horrek esan nahi duen guztiarekin. Beraz, hiru hizkuntzak dira irakas-hizkuntza baina euskara da irakas-hizkuntza nagusia. Eta irakaskuntzan duen presentzia irizpide pedagogikoen arabera zehazten da, hezkuntza-eremu guztiak eta ikaskuntza-baliabide guztiak barne hartuta.
- » Irteera-profilak: Ikastetxeetako hizkuntza-proiektuen helburua da derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran ikasleek B2 maila izatera iristea bi hizkuntza ofizialetan eta B1 maila atzerriko hizkuntza batean. Beraz, ikastetxeetan egin beharreko hizkuntzen tratamendu integral eta integratuak helburu horri erantzuten dio.
- » Euskararen ikas-irakaskuntza eta euskal kulturaren ezagutza eta transmisioa eskutik hartzen dira, hizkuntzaren jabekuntza funtzional hutsean baino komunikazio sinbolikoan, afektiboan eta kultur-komunikazioan jarriz arreta. Euskara ikasi eta irakastea ez ezik, euskaraz eta euskaratik mundua ulertzeko ikuspegia ematen du, ikasleen errepertorio kulturallean eta ikuspegi historiko eta sozialean eraginez.
- » Hizkuntza-proiektuak derrigorrezkoak dira Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa eskaintzen duten ikastetxe guztientzat, hau da, diru publikoa jasotzen duten ikastetxe guztientzat. Ondorioz, euskara ardatz duen esparru eleaniztuna ikasteredu orokortua da Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publiko osoan.
- » Ebaluazioa: Ikastetxeetako hizkuntza-proiektuak ebaluatu egiten dira hizkuntzen irakaskuntza prozesuaren bilakaerari erreparatuz eta ahozko eta idatzizko emaitzak kontuan hartuta.

1. <http://ebiltegia.mondragon.edu/xmlui/bitstream/handle/20.500.11984/5392/Irakasleen%20prestakuntza%20gogoetatsua%2C%20hezkuntza%20berritzeko%20giltza.pdf?sequence=11&isAllowed=y>

Hezkuntza-administrazioak finkatzen du ebaluazio horren nolakotasuna eta ezartzen ditu beharrezko baliabideak. Helburuak betetzen ez diren kasuan, beharrezko zuzenketak agintzen dira.

- » Ikastetxeek beharrezko baliabideak jasotzen dituzte hizkuntza-proiektuek legeak ezarritako helburuak bete ditzaten. Ingurune soziolinguistiko eta sozioekonomiko zaurgarrian dauden ikastetxeek baliabide gehiago jasotzen dituzte: gehiago behar duenak gehiago jasotzen du.
- » Ikastetxeetako euskal giroa: Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren parte diren ikastetxeek arnagune funtzional izan nahi dute. Ikastetxeetan euskara da ohiko komunikazio-hizkuntza harreman mota guztietan.
- » Hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko uztarketaren bidez, ikasleen aisialdia euskaraz eskaini eta haur eta gazteen aisialdian euskararen normalizazioa planifikatzeko helburua du.

Marko estrategikoa

Honako marko estrategiko hau jotzen dugu ontzat abiaburu gisa. Egitura hau edukiz betetzea falta da, helburu estrategikoak garatzeko proiektu estrategiko konkrituak (neurriak, urratsak) definituz.

Eragin-eremuak	Lerro estrategikoak	Helburu estrategikoak
Irakasleak	<p>Hizkuntzetan eta hizkuntzen irakaskuntza-prozesuetan ondo formatutako irakasleak behar ditugu (euskaraz irakasteko gaitasun osoa dutenak eta bera hobetzeko prestutasuna dutenak, ezagutza soziolinguistikoa eta euskal kulturaren ezagutza...).</p> <hr/> <p>Ikastetxea eta bere ingurunea ezagutzen duten irakasle konprometituak eta inplikatuak behar ditugu.</p> <hr/> <p>Irakasleen arteko sareak sustatzea, elkarri lagundu eta elkarrengandik ikasteko.</p>	<p>Formazio-plan sendoak garatzea.</p> <hr/> <p>Ikastetxea eta hizkuntza-proiektuak ezagutzeko harrera-planak diseinatzea.</p> <hr/> <p>Irakasleen artean elkar lagundu eta saretzeko espazioak eta dinamikak aktibatzea.</p>
Hizkuntza-proiektuak	<p>Ikastetxeetako hizkuntza-proiektuak gure ikasleen hizkuntza-helburuak lortzeko tresna eraginkor eta eraldatzaileak izatea, tokiko errealitatea eta ikastetxeko hezkuntza-komunitatea aintzat hartzen dituenak.</p>	<p>Ikastetxeei haien hizkuntza-proiektua eraldatzeko prozesuan laguntzea, hizkuntza-proiektuak barnebildu behar dituen esparru ezberdinak kontuan hartuz.</p> <hr/> <p>Hizkuntza-proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egitea, kalitate-parametroetan oinarritzen diren helburuen betetze-maila neurtuz.</p> <hr/> <p>Euskaran ardaztutako hizkuntza-proiektu eleaniztunak garatzeko tresnak eta esku-hartzeak inplementatzea.</p>

Curriculum berria

Ikasleen hizkuntzetako irteera-profila lortzeko beharrezko aldaketa didaktiko metodologikoak gauzatzea, hizkuntzen trataera integrarean sakonduz eta hizkuntza bakoitzari dagokion trataera metodologikoa emanez.

Berrikuntza pedagogiko eta metodologikoak inplementatzea, hiztunen ibilbide linguistiko desberdinak kontuan hartuta.

Ahozko hizkuntza eta euskararen erabilera sustatzeko metodologia eta material didaktikoa eraberritu eta garatzea.

Ikasle guztien hizkuntza-aniztasuna eta kulturartekotasunarekin lotutako edukiak gelan eta gelatik kanpo lantzea.

Funtsezko konpetentzietatik harago, euskararen beste alderdi batzuk ere lantzea: oinarritzko soziolinguistika, motibazioa, jarrera eta portaerak...

Eragin-eremuak

Lerro estrategikoak

Helburu estrategikoak

Hezkuntza soziolinguistikoa

Ikasleek, hizkuntzak ikasteaz gain, hizkuntza horien egoera, erabilera eta beraien arteko harremanak ulertzea.

Ikastetxeetako curriculumean oinarritzko eduki soziolinguistikoak lantzea.

Euskararekiko eta beste hizkuntza eta kultura guztiekiko jarrera eta portaera positiboak lantzeko edukiak programazio didaktikoetan txertatzea.

Ikasleak

Ikasle guztien garapen integrala, ongizate emozionala eta arrakasta akademikoa ahalbidetzeko, ikasleak euskara, gaztelania, atzerriko hizkuntza baten eta haien etxeko beste hizkuntza baten jabe izatea.

Gure ikasleek euskaraz komunikatzeko konpetentzia egokia izatea.

Ikasleen artean euskararen erabilera areagotzeko ekimenak gauzatzea.

Atzerriko hizkuntza batean nahikotasunez komunikatzeko konpetentzia izatea.

Berandu sartzen diren beste lurralde batzuetako ikasleen hizkuntza-arretei adi egotea, inklusioa ahalbidetzeko programak martxan jarritz.

Euskal kulturaren transmisioa	Ikastetxeak euskal kulturaren transmisio gile izatea.	Ikaslaro guztietan euskal kulturarekin lotutako eduki desberdinak lantzeko jarduerak planifikatzea.
		Ikasleei adierazpide kultural desberdinak ezagutzeko, kontsumitzeko, sortzeko eta beraiez gozatzeko bideak ematea.
		Komunitatean etengabe elkarerraginean dauden beste kultura guztiekiko begirada lantzea.
		Euskal dimentsioaren kontzeptua definitzea, tokiko eragileekin batera.
Familiak	Familiak ikasleen ikaste-prozesuan aktibo izatea.	Oinarrizko informazioa (murgiltze-ereduei buruzko ezaugarriak, euskara kohesiorako tresna dela...) eta formazioa eskaintzea familiei (seme-alaben euskalduntze-prozesuan etxetik laguntzeko aholkuak...)
		Familiei begirako komunikazio-plana diseinatzea (diskurtso partekatua), hedabideekin aliatuz.
Eragin-eremuak	Lerro estrategikoak	Helburu estrategikoak
Eskolaz kanpoko sozializazioa	Ikasleak eskolaz kanpoko sozializazio-esparru guztietan euskaraz aritzeko lankidetzaren eremuak zabaltzea.	Kultura-, aisialdi- eta kirol-jardueren euskarazko eskaintza bermatzen dela jakitea.
	Digitalizazio-aroak irekitzen dituen sozializazio-esparru berriei adi egotea, euskarak duen presentzia eta eskaintza ikasleei ikusarazteko.	Begirale, entrenatzaile eta irakasleak hizkuntza-jarrera eta portaeretan eragiteko formazioa jasotzea.
Udalerrria/komunitatea	Ikastetxeko hezkuntza-komunitatetik harago, hezkuntzari herri-begiradatik begiratzea, hezkuntza-erronkei modu bateratuan erantzuteko.	

Tresna berriak

Euskara ardatz duen esparru eleaniztunaren garapenak tresna berriak eskatzen ditu. Erronka itzela da, esperimentazio-prozesu bat izango da, zeinak gure gaitasun instituzional eta komunitarioak modu eraginkorrean aktibatzea eskatzen duen. Zentzu horretan, ondorengo tresnak estrategikotzat jotzen ditugu:

- » Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua: D eredia berrasmatu eta sisteman ezartzeko beharrezko ezagutza eta baliabideak ekoitzi behar dituen erakundea (lege-proiektuan jaso).
- » HiKI (Hizkuntza Konplexutasun Indizea): Ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-konplexutasuna neurtzen duen adierazlea, modu publikoan arautu beharko litzatekeena. HKIren (Hezkuntza Konplexutasun Indizea) parekoa hizkuntzari dagokionez. Indize honek balioko luke ikastetxeak hizkuntza-konplexutasunaren arabera taldekatu eta, kontratu-programen bidez, bakoitzari behar dituen baliabideak esleitzeko, bai eta ikasleen sarbide orekatuaren alde egiteko ere.
- » Irakasleen formazioa eta ikastetxeetako baliabideak: Irakasleen sarbidea birdefinitu beharko litzateke (Enplegu Publikoko Eskaintza eredu berria), sistemaren sarreran C1 mailako hizkuntza-profila egiaztatu beharko litzateke eta langile-kolektibo guztien euskalduntzea bultzatu. Irakasleek formazio iraunkorra jaso beharko lukete eta ikastetxe bakoitzak hizkuntza-proiektuak garatzeko beharrezko baliabide pertsonal eta material nahikoak izan beharko lituzke (Eusko Jaurlaritzak LAB eta Interinoak taldearekin izenpetutako akordioan jaso).
- » Udal Hezkuntza Kontseiluak: Besteak beste, hezkuntza-proiektu komunitarioak taxutu eta bultzatzea helburu duten kontseiluon zeregina izan beharko litzateke ikasleak eskolaz kanpoko sozializazio-esparru guztietan euskaraz aritu daitezen lankidetzaren eremuak zabaltzea, haur eta gazteen aisialdia euskalduntzeko helburuz.

Garabidea

Zein da bide honi aurreikusten diogun garabidea? Gure ustez, hizkuntza-proiektuen tipologiari dagokionez, datozen hamar urteetan, bide honek ekarri beharko luke A ereduaren desagertzea, B ereduak D ereduetara igarotzea eta D ereduak D+ ereduetara igarotzea. Azken urteetako matrikulazio-joerak aintzat hartuz, beharrezko bultzada politiko eta soziala eta elkarlanerako disposizioa balego, uste dugu herri hau gai dela halako eraldaketa prozesu baterako. D eredia berrasmatu eta orokortzea, horixe da iparra.

Alabaina, argi izan beharko genuke guztiok hori ez dela egun batetik bestera egiten den zerbait. Gutxiago irudikatu dezakegu lege bidez edo dekretu bidez egin daitekeen jauzi baten gisara. Prozesu bat izango da, ikastetxez ikastetxe egin beharrekoa (ikastetxe bat, hizkuntza-proiektu bat) eta, esan bezala, eragile askotarikoen elkarlan estrategiko baten ondorioa. Hezkuntza-lege baten ez du, bere kabuz, errealitate sozialik sortzen (ikus Euskal Eskola Publikoaren Legeak ikastetxeen autonomiaz zioena eta zer garabide izan duen 30 urteotan). Herri-prozesurik gabe ez da eraldaketarik gertatuko. Herri honen historia modernoan izan diren prozesu herrigile eraldatzailerik sakonenen pareko zerbait da irudikatzen duguna. Eta gaude badugula horretarako oinarri komunitario nahikorik.

Zalantzarik gabe, bide hau zeharo baldintzatuko du hizkuntza-politikaren gainontzeko ataletan egingo (ez) denak.

Lege-proiektuaren heldulekuak

Hezkuntzan eta hezkuntzatik egin beharko litzatekeen hizkuntza-politika definitu dugu, beraz. Legearen eztabaidaren azken txanpan aztertu behar dena da, beraz, zeintzuk diren halako hizkuntza-politika bat garatzeko ditugun euskarri juridikoak, eta hauek nola definitu ahalik eta eraginkortasun juridiko handiena lortze aldera.

Jarraian, lege-proiektuan ikusten ditugun heldulekuak zerrendatuko ditugu:

Heldulekuak

Euskararen ardaztasuna

- Zioen azalpena. Lege berri baten zergatia: Lege horren (10/1982 Legea) 2. artikuluan adierazten da euskara dela Euskal Herriko hizkuntza propioa. Euskal Herriko mapa soziolinguistikoek eta inkesta soziolinguistikoek erakutsi dute euskara, gaur egun, gutxiengoaren hizkuntza eta hizkuntza gutxitua dela, erabilera-eremu formal eta informal gehienetan.
- Zioen azalpena. Hezkuntza-sistemaren balioak: Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin -Euskal Herriko hizkuntza propioa baita- eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen-, eta elkarbizitza-tresnatzat hartzen dituen heinean, baita beste hizkuntzekin ere.
- Zioen azalpena. Hezkuntza eleaniztuna eta kulturartekoa: Era berean, lege honen bitartez, euskarak hezkuntza-komunitate osoan duen presentziak jauzi kualitatiboa egingo du, hezkuntza-sistemaren erreferentzia-hizkuntza gisa duen zeregina indartu nahi baita, eta ikasleek hezkuntza-testuinguru formalean eta ez-formalean modu aktiboan erabil dezatela sustatu.
- 3.k artikulua: Kalitatean eta bikaintasunean, ekitatean, inklusioan eta berrikuntzan oinarritutako hezkuntza-sistema eleaniztuna bermatzea, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, eta ikasle eleaniztunak modu eraginkorrean garatzeko esparru propioa antolatuta.
- 7.3 artikulua: Arreta berezia eskainiko zaio euskarari, gure hizkuntza propioa baita, zeinak jarduketa eraginkorrak behar dituen ezagutzan eta erabileran aurrera egiteko, nortasun-, adierazpen- eta elkarbizitza-bitarteko gisa...
- 68.4 artikulua: Hizkuntza-proiektuaren esparruan, ikastetxeek komunikazio-gaitasuna —batez ere euskararena— lantzeko helburuak planifikatuko eta finkatuko dituzte ikasgai guztietan.

**Irteera-
profilak**

- 66.1 artikulua: Curriculum-dekretuek hizkuntza horien ezagutza praktiko eta nahikoa definitu beharko dute, baita hizkuntza horien irakaskuntza eraginkorra ere. Gutxieneko helburu gisa, konpetentzia-maila hauek finkatuko dituzte:
- Lehen Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 maila lortu beharko da bi hizkuntza ofizialetan.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila lortu beharko da bi hizkuntza ofizialetan.

**Euskararen ikas-
irakaskuntza
eta euskal
kulturaren
ezagutza eta
transmisioa
eskutik**

- Zioen azalpena. Hezkuntza eleaniztuna eta kulturartekoa: Hezkuntza-komunitate osoaren ardura da ikasleei profil eleaniztuna eta kulturartekoa, multimodala, garatzen laguntzea, mundu global eta kulturantzun batean integratzeko eta euskararen erabilera aktiboarekin konprometitzeko, euskal kultura ezagutzeko eta hura garatzen eta eguneratzen laguntzeko, eta, aldi berean, beste hizkuntza eta kultura batzuk ezagutzeko jakin-mina eta motibazioa lantzeko.
- 65.5 artikulua: Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak euskararen erabilera indartuko du berariazko planen bidez, eskola-ekintzan hizkuntza horren ohiko erabilera normalizatzeko xedez. Helburu berarekin, arreta berezia eskainiko zaio euskal kultura ezagutzeari.

**Hizkuntza-
proiektuak
derrigorrezkoak
Euskal
Hezkuntza
Zerbitzu
Publikoa
osatzen duten
ikastetxe
guztietan**

- 25.3 artikulua: Ikastetxe horiek guztiek (Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren prestazioa ematen dutenek) printzipio hauek izango dituzte oinarri: euskara hezkuntza-sistemaren barruan lehenestea, hezkuntza-jardueran zein harreman profesionaletan, baita ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere, eta ezarritako hizkuntza-helburuak betetzea.
- 67.1 artikulua: Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten ikastetxeek, hezkuntza-proiektuaren osagai gisa, hizkuntza-proiektu propio bat egin behar dute, hizkuntzak ikastetxean nola tratatu behar diren zehazteko, helburua hartuta euskara ardatz nagusi izango duen sistema eleaniztuna, zeinean bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ikaskuntza-hizkuntzat hartuko baitira.

Ebaluazioa

- 66.1 artikulua: Ikasleen ardura beren gain duten irakasle-taldeek ebaluatuko dute gutxieneko helburu horiek betetzen diren.
- 66.5 artikulua: Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak beharrezkoak diren ebaluazio-tresnak arautuko ditu, irakasle-taldeek berek baloratu ditzaten lortu diren emaitzak, halako moduan non ikasle guztiek lege honetan xedatutako hizkuntzen ezagutza-maila eskuratzen dutela bermatuko baita. Gainera, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak jarraipen-sistema eraginkor bat jarriko du abian, ebaluazioaren emaitzak hobetzeko eta ezarritako helburuak lortzeko.
- 67.4 artikulua: Hezkuntza-administrazioak, tokian tokiko ikastetxearekin lankidetzan, ikastetxearen hizkuntza-proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu, hobekuntza-prozesuak gauzatzeko.
- 79.3 artikulua: Erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera, ebaluazio integraleko ebaluazio-sistema bat arautuko da, prestakuntzara eta berrikuntzara bideratua, ebaluazioaren ikuspegi integrala garatuko duena, kontuan hartuta ebaluazio hori prozesu konplexua eta faktore anitzekoa dela, barne hartzen dituena ikasleak, irakasleak, curriculumak, zuzendaritzak, ikastetxea, familiak, hezkuntza-komunitatea eta -sistema, eta autoebaluazioaren eta kanpo-ebaluazioen arteko osagarritasuna bilatu behar duela.

- 79.6a artikulua: Ikasleek curriculumaren arlo guztietan izandako aurrerapenak kontuan hartzen dituen hezkuntza-errendimenduaren ebaluazioa, oinarritzko kompetentzien eskuratze-maila barne, hezkuntza-sistemako etapa eta ikasturte guztietan egiaztatua. Gainera, lege honetan aurreikusitako helburuen eta formen arabera eskuratutako komunikazio- eta hizkuntza-kompetentziak ere ebaluatuko dira.
- 80c artikulua: Autoebaluazio-sistemen eta kanpo-ebaluazioen arteko osagarritasuna bilatzea, azken horiei lehenetsuna emanez beti ikastetxearen eremua gainditzen duten ebaluazio orokorreko prozesuetan.

Gehiago behar duenak gehiago jaso

- 25.3 artikulua: Horretarako, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak baliabide espezifiko batzuk menago dizkie euskararen presentzia urria duten ingurune soziolinguistikoetan lan egiten duten ikastetxeei.
- 36.9 artikulua: Hezkuntza-administrazioak berariazko laguntza eta babesa sustatuko ditu, lehenetsunez, autonomia garatzeko zailtasun handienak dituzten ingurune behartsuetako ikastetxeek programa-kontratuak egin eta gara ditzaten, haien hezkuntza- eta curriculum-proiektuak indartzeko eta ikasleei eta hezkuntza-komunitateari erantzun egokiagoak emateko.
- 66.3 artikulua: Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak eta ikastetxeek beharrezko neurriak ezarriko dituzte finkatutako mailak lortzen direla bermatzeko, ingurune bakoitzeko abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak kontuan hartuta. Hizkuntza ofizialei eta atzerriko hizkuntzei buruzko gutxieneko helburu horiek Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten ikastetxe guztietan aplikatuko dira.
- 67.2 artikulua: Ikastetxeko hizkuntza-proiektuak ikasleen hizkuntzen ikaskuntza, erabilera eta hizkuntzekiko jarrera positiboa planifikatu behar ditu, kontuan hartuta abiapuntua eta ingurune bakoitzaren ezaugarri soziolinguistiko eta sozioekonomikoak, horrela ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran eskatutako hizkuntza-maila eta beharrezko kompetentziak eskura ditzaten, lege honen 66. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Ikastetxeetako euskal giroa

- 25.3 artikulua: Ikastetxe horiek guztiek (Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren prestazioa ematen dutenek) printzipio hauek izango dituzte oinarri: euskara hezkuntza-sistemaren barruan lehenetsia, hezkuntza-jardueran zein harreman profesionalean, baita ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere, eta ezarritako hizkuntza-helburuak betetzea.
- 73.1 artikulua: Euskararen erabilera orokortzeak berekin dakar hezkuntza-komunitate osoaren erantzunkidetasuna, honako hauek helburu:
 - A. Euskararen erabilera sustatzea. Funts publikoen bitartez finantzatutako ikastetxeetan, euskara izan behar da, jeneralean, ikastetxean bertan garatzen diren jardueretarako eta kanpo-proiektuak jardueretako adierazpidea.
 - B. Euskararen irakaskuntzari eta erabilerari dagokienez, gizarte-kohesioa eta hezkuntza-jarraitutasuna lortzea. Funts publikoen bitartez finantzatutako ikastetxeek inguruko erakunde eta entitateekin koordinatu behar dituzte beren jarduketak.

Aisialdia euskaraz

- 67.5 artikulua: Euskararen irakaskuntzari dagokionez, hizkuntza-proiektuak curriculumaren eta ikastetxearen helburuak zehaztuko ditu. Gainera, euskararen ingurune-erabilera ziurtatzera bideratutako eskolaz kanpoko jardueren proposamenak jaso behar ditu.
- 73.3. artikulua: Hezkuntza-komunitateko eragilean, eskolaz kanpoko jardueren eta aisialdiaren arteko lankidetzak bultzatuko da.

Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua

- 89. artikulua:
 1. Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua sortzen da, autonomia funtzionala duen organo gisa, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailari atxikita.
 2. Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren egiteko nagusia da hizkuntza-metodologiak lantzea eta irakasleak prestatzea, haien jarrera, aurrerapena eta hizkuntza-inplikazioa indartzeko, hezkuntza-sistemak testuinguru bakoitzean dituen eskakizunen arabera. Horretarako, Institutuak bere gain hartuko ditu hezkuntzaren arloko eskumena duen saileko Euskara Zerbitzuak sortu zenetik bete dituen eginkizunak.
 3. Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez zehaztuko ditu Euskararen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta eginkizunak, lege honetan ezarritakoaren arabera, eta bere Antolakuntza eta Jarduera Araudia onartzeko ahalmena aurreikusiko du, erregelamendu bidez xedatuko denaren esparruan.
 4. Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua euskararen erabilera aktiboa sustatzeko sortzen da, honako eremu hauetan gutxienez:
 - A. Irakasleak hizkuntza eta metodologiaren alorretan gaitzea, euskal kultura transmititzeko gaikuntza barne.
 - B. Euskal Hezkuntza Sistemaren hizkuntza-ziurtapenaren alorreko beharrak aztertzea eta haiei buruzko proposamenak egitea eta ezartzea.
 - C. Euskal curriculumak lantzea eta eskola-materialaren ekoizpena antolatzea.
 - D. Eskola-eremuan hizkuntza-erabilera dinamizatzea (normalizazio-planak, jarduerak sustatzea, berrikuntza, ikerketa, dibulgazioa eta diseinu bereziko programak).
 - E. Lege honen erregelamendu bidezko garapenean jasotzen diren gainerakoak.

Irakasleen formazioa eta ikastetxeetako baliabideak

- 70.1. artikulua: Hezkuntza-administrazioak irakasleak prestatzeko eta hobetzeko plan bat egingo du, curriculumeko hizkuntzetan duten hizkuntza-kompetentzia hobetzeko.
- 70.2 artikulua: Irakasleek euskarako C1 maila eta ingeles-irakasleek ingeleseko C1 maila lortzeko prestakuntza sustatuko da.
- 70.3 artikulua: Prestakuntza-planak curriculum-hizkuntzen ezagutza ziurtatuko du, eta euskararekiko eta haren erabilerarekiko konpromisoa sustatuko du.
- 71. 1 artikulua: Hezkuntza-administrazioak berariazko prestakuntza eskainiko du metodologiari, aplikazioari, curriculum-diseinuari eta diziplinarteko lanari dagokienez, hizkuntza-proiektuak sistema eleaniztun batean gauzatzeko, euskara ardatz nagusitzat hartuta.
- 90.3 artikulua: Hasierako prestakuntzako ikasketa-planek, prestakuntza zientifikoaz gain, honako hauek ere bermatuko dituzte: alderdi psikopedagogiko eta didaktikoetan beharrezkoak diren kompetentziak eskuratzea, bi hizkuntza ofizialak menderatzea, atzerriko hizkuntza bat jakitea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak menderatzea, irakaskuntzako talde-lana, eta irakaskuntzan lan egiteko trebetasun sozial eta tutorial egokiak izatea.

***Eusko Jaurlaritzaren-LAB/Interinoak akordioan:**

- Hezkuntza Sailak aurrez aipaturiko helburuak erdiesteko, besteak beste, hurrengoak bermatuko ditu: Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektua izateko baliabide-pertsonal eta material nahikoak; hezkuntza sailaren arduraren izanik hezkuntza-proiektuak gauzatzeko aholkularitza, gidaritza, jarraipena eta ebaluazioa; Hezitzaile orok hezkuntza-gaitasun nahikoa, goi-mailakoa, bere diziplinan jarriotasunez eta aberastasunez bestelakoa dela bermatzeko dagozkion etengabeko prestakuntza-lerroak eskura izatea.
- Kolektibo guztiak euskalduntzeko konpromisoa hartzen da, LPZetan hezkuntza-eskakizunak zehaztuaz. Langile-kolektibo guztiei eskaini beharrezko etengabeko euskalduntzea bultzatuko da, esfortzu berezia eta plan berezitua eginez guztiz euskaldunak ez diren kolektiboetan; Lanbide Heziketako irakasle batzuk, sukalde eta garbiketako langileak, Hezkuntza Laguntza Espezialista zenbait.

**Udal Hezkuntza
Kontseiluak**

- 33.3 artikulua: Bai hezkuntza-administrazioak, arauzko esparrua ezartzean edo erabaki exekutiboak hartzean, bai, bereziki, udal hezkuntza-kontseiluek eta ikastetxeek berek, lankidetzaren ekimen berritzaileak sustatu behar dituzte hezkuntza-proiektu komunitarioak bultzatzeko, beren jardueren hartzaile ikasleak dituzten eragileekin —gizarte, ekonomia, kirola, kultura eta osasunaren arlokoak zein hirugarren sektorekoak—, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean harmonia izan dadin.
 - 59.2 artikulua: Kontuan hartuta udal hezkuntza-kontseiluen premisa nagusia — alegia, herritarrak heztearen erantzukizun partekatua dela—, gune instituzional horien helburua izango da hezkuntza-proiektu komunitarioak taxutzea eta bultzatzea, baliabide publikoen erabileran sinergiak sortuz eta ikasleen ongizatera eta garapenera bideratutako ekintzak gauzatzeko, erregelamendu bidez ezartzen diren atribuzioen arabera.
 - 59.3 artikulua: Udal hezkuntza-kontseiluek bultzatutako programek, proiektuek eta ekintzek hezkuntza-komunitate osoaren parte hartzea sustatuko dute, eta antolaketa formala eta ez-formala uztartzea bultzatuko dute.
-

Zertarako momentua da?

Aukerak eta hautua

Bide bat da hemen proposatzen dena, prozesu bat. Prozesu konplexu bat eraldaketa sozial guztiak bezalaxe, ziurgabetasun maila bat dakarrena berarekin. D erredua berrasmatu eta orokortzea, hori da iparra. Baina hori diskurtso eta praxi egokien eta estrategia partekatuen bidez baino ez daiteke egin. Bide hau hamarraldi oso bateko prozesu baten gisara irudikatzen dugu, modu deszentralizatuan jorratu beharrekoa, ikastetxez ikastetxe (ikastetxe bat, hizkuntza-proiektu bat), tokian tokiko baldintza konkretuetatik abiatuz. Hau ez da dekretu bidez egin daitekeen zerbait, tokian tokiko esku-hartze komunitario sendoen bidez baizik. Noski, horretarako beharrezko marko instituzionala eta baliabideak jarri behar dira. Esperimentazio-gune seguru bat eta bidean gertatuko dena elkarrekin interpretatzeko dispositibo egokiak sortu behar dira. Zentzu horretan, datozen hilabeteetan honako urratsak eman beharko liratekeela deritzogu:

- » Hezkuntza-sisteman garatu beharreko hizkuntza-politika oinarritu eta esplikatuz (egoeraren diagnostia, marko teorikoa, marko estrategikoa, garabidea).
- » Martxan jarri beharreko tresna berriak identifikatu eta definitu.
- » Legeak eman beharreko euskarri juridikoak ondo definitu.
- » Esperimentazio-prozesua gobernantza-eredu irekien bidez kudeatzeko beharrezko dispositiboak baloratu eta definitu.

Bide honek alderdi politiko nagusien borondate argia eskatzen du, baita orain arte izan ez diren tresna eta baliabideak aktibatzea ere. Baina, ondorengo honetan azpimarra egin nahi dugu: hori guztia izanda ere, bultzada sozialik gabe ez da posible izango. Udalak, sindikatuak, euskalgintza,

guraso-elkarteak eta era askotako elkartegintza apustu honen alde lerratu gabe, ezinezkoa da. Itxura batean, esango genuke badagoela indar komunitario nahikorik: udaletan zein hiru eskola-sareetan alderdi eta sindikatu abertzaleek dute erabateko nagusitasuna. Ehun komunitario bat ere badago sendo samarra euskalgintzaren eta hezkuntza-komunitatearen bueltan apustu hau hiru herrialdeetako ikastetxe guztietara eramanez ahal izateko.

Aukera honek baditu arriskuak, noski, eta beharrezkoa da esplizitatzea. Egongo da planteamendu hau bere garaian Isabel Celaá buru zuen Hezkuntza Sailak egin nahi izan zuen horren arrastoan jarri nahiko duenik. Halaber, garapen desegoki batek deriba arriskutsuak ekar ditzake, Nafarroan PAI programa den zerbaiterantz. Arrisku hauen aurrean bada proposatzen duenik hobe dugula gauden lekuan gelditzea, ziurgabetasuna gehiegizkoa dela, aldeko baldintzarik ez dagoela.

Ulegarria zaigu pentsaera hori, baina, gure ustez, ez da aukera bat. Egiten ari garena eginez ez dugu aurrera egingo. Are, egiten ari garena eginez atzera egiten ari gara. Beraz, hautu bat egiteko momentua da. Indarrak neurtuz eta ahalik eta planifikazio zorrotzenak eginez, bai, baina, arriskuak hartuta; beti ere, ahalik eta helduleku ziurrenak bilatuz.

Aukera bat da, bere arriskuekin, elkarrekin eraiki beharrezkoa. Aldeko baldintzak ere eraiki egin beharko dira neurri batean, prozesuak berak sortu beharko baititu hein handian. Baina hau ez bada, zer? Erresistentzia ez bada aukera bat, zein da aurrerabidea? Gure gaitasun instituzional eta sozialak uztartuz soilik egingo diegu aurre garaiko erronka sozialei. Eta guztiok dugu ardura, gauden lekuan gaudela, aurrerabideak planteatzeko.

Euskalduntze-prozesuaren egoeraren diagnostikoan bat baldin bagatoz eta hartu beharreko bidearen inguruko adostasun lauso bat baldin badugu, estrategia partekatuak eraikitzen hasteko aitzakiarik ez dago. Ezin du egon. Premisa batetik abiatu ahalko genuke denok: instituzioek, beren kabuz, inoiz baino gaitasun transformatzailerik mugatuagoa dute. Garaiko baldintza politikoe-tan, ez daiteke pentsatu hizkuntzaren biziberritzea den bezalako prozesu sozial-komunitario bat instituzio formalen agentzia hutsez garatu daitekeenik. Berdin esan daiteke herri-mugimenduak edo gizarte zibil antolatuen inoizko potentzial mugatuena daukala gizarte-baldintza hauetan. Ondorioz, estrategia partekatuak diseinatu eta martxan jartzera kondenatuta gaude. Euskalgintzaren fase berri bat abiarazteko unea da.

Esperimentazio-prozesu seguruak martxan jarri eta lankidetzaren mekanismo efektiboak abiatzeaz ari gara. Euskalduntze-prozesuaren bide garaikideetan martxan gaudenaren sentipen kolektiboak soilik emango digu indarra kontrako korronteari aurre egiteko. Konpromiso horiek eskatzen duen unea da.